

Manterolaren ondarea bizirik, 125 urteren ostean

NEREA LIZARRALDE

Narrika kalean jaio zen Jose Manterola Beldarrain, 1849ko martxoaren 23an. 35 urte bete gabe hil zen. Gazte joan zen, baina ekarpen izugarria utzi zuen euskal kulturgintzan. Bere ibilbideari erreparatu besterik ez da egin behar denbora epe labur horretan lana gogoz egin zuela ikusteko.

Udal Liburutegiko zuzendaria

Manterola giro erromantikoan hezi zen. Gaztetatik izan zuen euskal munduaren inguruan jakinmina eta bere alde egiteko jakintza sendoz hornitu zen. Bere aita, Gregorio Manterola diputatu jenerala izan zen. Filosofia eta Letretako ikasketak egin zituen eta amaitu baino lehen Madrileko El Resumen aldizkarian hasi zen idazten. Gero foruzaleen La Paz eta liberalen Aurrera argitalpenetan hasi zen idazten. Handik gutxira bere lehen liburua plazaratu zuen: Guia manual geografico descriptiva de la provincia de Guipuzcoa. Diario de San Sebastian egunkariko zuzendari ere izan zen eta laster Donostiako Udal Liburutegiaren zuzendaritza eskuratu zuen. Kanta zaharren biltzaile ere izan zen. Bilintxen zenbait lan ere betiko galduko ziren berak jaso ez balitu.

Manterola ere izan zen Lore Jokoen bultzatzaile garrantzitsuenen. Euskal Erria aldizkaria, euskaltzaleen topagune

1876. urteko Foruen galerak pizkunde euskaltzalea eragin zuen eta Jose Manterola eta bere Euskal Erria aldizkaria loraldi honen protagonista ospetsuenetakoa izan zen. Gero etorriko ziren ikuspegi berrituagoak eskainiko zituztenak, baina ukaezina da Manterolak berpizkundearen hasieran egin zuen lanaren garrantzia. Manterolak berak sortu zuen aldizkaria 1880an. 1918an azken alea argitaratu zen bitartean idazle eta euskaltzaleen topagune izan zen Euskal Erria. Euskara, frantsesa zein gaztelania erabiliz, hizkuntza, kultura eta historiaren erreferentzia bihurtu zen berehala euskal munduan. Orduko idazle, hizkuntzalari eta euskaltzale guztiek argitaratu zituzten euren lanak argitalpen honetan: Felipe Arrese Beitia, Ramon Artola, E. Azkue, Antoine d'Abbadie, Carmelo Echegaray, Guilbeau, Pedro de Egaña, Jean Baptiste Elissamburu, Claudio Otaegi, Louis Lucien Bonaparte printzea... Euskal literaturako lanez gain, historia, antropologia, arkeologia eta filosofiari buruzko artikuluak jaso zituen. Aldizkari honen 79 liburukiak garaiko Euskal Herriko, eta bereziki Donostiako, kultura eta hizkuntzaren isla bikaina dira. 1884an Manterolak bere poemarik dramatikorik ezagunena argitaratu zuen aldizkari honetan: Post Tenebras spero lucem. Poema honetan ikus daiteke Foruen galerak zenbateraino astindu zuen Euskal Herriaren kontzientzia. Buruko odol isuri batek eraman zuen bat batean Jose Manterola, orain duela 125 urte, 36 urte betetzeko hilabete eskas falta zirenean.